

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Ohoin jendea

HORRELAKOEN ARTEAN, ohoin artean, lapurrez inguratuta bizi behar izan zuen Joseph Dombey botanikari burgundiar ospetsuak (Macon 1742 - Montserrat 1794). Pirinioetan eta Alpeetan zaildua, Ameriketako landaretza ezagutzeko ezinbesteko kate-begia da. 1778an Callaora iritsi zenetik, bueltan 1785ean Cádizira joan artean bildutako aleak, laginak eta informazioa egun ere oinarrizko dira

botanikan. Londres, Madril eta Parisen sakabanatua dago haren lanaren emaitza. Londreskoa British Museumen, 1780an Amerikatik igorrita Frantziara bidetan mukuru zihoan baliza-kutxa ingelesek harapatutakoa. Madrilgoa Baratze Botanikoan, agintariek bai Callaon bertan konfiskatutako hirurehun bat landare arraroen marrazki original, bai Cádizira bueltan iritsi zenean atzeman zioten bilduma. Pariskoa Naturaren Historiaren Museoko landaretegian,



ERIC BRONSON

225 bat espezie biltzen ditu *Dombeya* generoak. Argazkian, *Dombeya wallichii*.

libratu zuen apurra. Garaiko botanikarien makina bat lainez haizatu zuten hari lapurtutako lanek, ezagunak Pavon eta Ruiz espainiarrak. Frantziako Iraultzaren ondoren bi mandatu garrantzitsurekin AEBetara bidali zuten: sistema hamartararen arauak eramatea eta ale eta bihien erosketa antolatzea. Ingelesek bera zerman ontzia harapatu eta Montserrat uharteko ziegetan hil zuten.

Familia eta genero askotako landare ugari izena jarri zion, eta bere izena daramanik ere bada. *Dombeya* generoak 225 bat zuhaitz eta zuhaiska biltzen ditu. Tokian-tokian erabilera handikoak, haren azaletik sokagintzan eta zakugintzan erabiltzen den zuntza sortzen baita. Bizia Amerikakoetara eman zuenari, Afrika eta Maskareinak uharteak tarteko genero bateko landareak eman zaizkio, gehienak, ia berrehun Madagaskarren.

LINE1-CC BY SA



Sasi-akazia.

Antxoaren loraldia

Bart arratsean, itsas labar gaineko pasieran, sasi-akazia, *Robinia pseudoacacia*, hosto punta berrien arteko babesean, loreen muskilak luzatzen hasi dela ikusi dut. Sasi-akaziaren loraldia eromena da. Sudurra gortzerainoko usain gozoa eta begiak itsutzen dituen larutasuna. Antxoek ere igartzen diote, nonbait, eta pozez erotu. Geure kostan behinik behin antxoa onenak sasi-akazia loretan denean, ez dio alferrik eserak "Arkazia lore, antxua urre". Adi datozen aste hauetakoen xamurrari. Baldin eta baldin bada...



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.